



Agindua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzeko dekretuaren proiektua egiteko prozedura has dadila agintzen duena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen helburua da xedapen orokorrak prestatzeko prozedura antolatzea eta, horretarako, 12.1 artikuluan ezartzen du prozedurek jorratzen duten dena delako gaian eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz hasi behar direla prozedurok. Halaber, lege horren 13.1 artikulua ezartzen du prozedura hasteko agindu honek zer eskakizun bete behar dituen eta zer eduki jaso behar dituen gutxienez.

Aurrekoa ikusita, agindu honen xedea da dekretu-proiektu bat egiteko prozedura hastea, Estatuko oinarritzko araudian ezarritako betebeharrak betetzeko; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzea eta haren edukia eta inskripzioak egiteko prozedura arautzea, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

Betebeharrak hori uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateginaren 123 bis artikuluan eta apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduen VII. tituluaren –urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren bidez gehitutakoan– xedatutakotik dator. Xedapen horiek

Orden del consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad por la que se ordena el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto por el que se crea el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, tiene por objeto regular el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, estableciendo, en su artículo 12.1, que estos procedimientos se iniciarán por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. Asimismo, el artículo 13.1 de la citada ley establece los requisitos y el contenido mínimo que debe reunir esta orden de inicio.

A la vista de lo anterior, el objeto de la presente Orden es acordar el inicio del procedimiento para la elaboración de un proyecto de Decreto con la finalidad de dar cumplimiento a la obligación, establecida en la normativa básica estatal, de crear el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco y regular su contenido y el procedimiento para la práctica de las inscripciones de conformidad con lo que establece la vigente legislación.

Dicha obligación deriva de lo dispuesto en el artículo 123 bis del Texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, y en el título VII del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, aprobado por el Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, incorporado por el Real Decreto 9/2008, de 11 de enero, que





presen, urtegien eta putzuen segurtasunaren arloko araubide juridikoa ezartzen dute eta Administrazio eskuduna presa eta urtegien segurtasuneko erregistro bat sortzera behartzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak, 2008ko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez, Uraren Euskal Agentzia izendatu zuen presen, urtegien eta putzuen segurtasunaren arloko organo eskudun, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 360.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 10.1.s artikuluan ezarritakoaren arabera, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari dagozkio uren arloko egitekoak.

Era berean, dekretu horren 10.2 artikulua xedatzen du sail horri atxikitzen zaiola "Uraren Euskal Agentzia" (URA) zuzenbide pribatuko ente publikoa, eta ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua ente horri esleitzen dio bere jardun-arloei dagozkien gaiei buruzko xedapen orokorren proiektuak egin eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunei helarazteko eginkizuna.

Horren guztiaren ondorioz eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikulua betez, honako hau

establecen el régimen jurídico en materia de seguridad de presas, embalses y balsas y obligan a la Administración competente a crear un Registro de Seguridad de Presas y Embalses.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Gobierno Vasco, mediante Acuerdo de 10 de junio de 2008, designó a la Agencia Vasca del Agua como órgano competente en materia de seguridad de presas, embalses y balsas, de conformidad con lo previsto en el artículo 360.2 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico.

Por su parte en el artículo 10.1.s) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se establece que corresponden al Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad las funciones en materia de aguas.

Asimismo, el artículo 10.2 del citado Decreto dispone la adscripción a dicho Departamento del ente público de derecho privado "Uraren Euskal Agentzia - Agencia Vasca del Agua" (URA), al que el artículo 7 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, atribuye la función de elaboración y remisión a las autoridades competentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco de los proyectos de disposiciones generales en materias propias de sus áreas de actuación.

En su virtud, y de conformidad con los artículos 12 y 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

de carácter general y demás normas concordantes
y de general aplicación,

EBAZTEN DUT**RESUELVO**

Lehenengoa. - Euskal Autonomia Erkidegoko presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzeko dekretua egiteko prozedura hastea.

Bigarrena. - Dekretu-proiektua agindu honen eranskinean jasotako premisen arabera egingo da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako moduan.

Primero. - Acordar el inicio del procedimiento de elaboración de un decreto por el que se crea el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segundo. - El Proyecto de decreto cuyo inicio se ordena se elaborará conforme a las premisas que se contienen en el documento anexo a esta Orden que se tomarán en consideración en los términos previstos en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

**ERANSKINA****ANEXO**

Agindutako dekretu-proiektua egiteko, honako premisa hauek hartu beharko dira kontuan:

LEHENENGOA. - Xedea eta helburua.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzeko dekretuaren proiektua egiteko prozedura has dadila erabakitzea.

Helburu nagusia da, Estatuko oinarritzko araudian ezarritako betebeharrak betetzea, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzea eta haren edukia eta inskripzioak egiteko prozedura arautzea, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA. - Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Dekretu honen bideragarritasun juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoari Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak esleitutako eskumenetan oinarritzen da. Zehazki, 10.11 artikulua eskumen eksklusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari arlo hauetan: ur-erabilerak, ubideak eta ureztatzekoak, urok Euskal Herrian zehar soilik igarotzen badira; energia ekoiztu, banatu eta garraiatzeko instalazioak, garraioa lurraldetik ateratzen ez bada eta ustiapenak beste probintziari edo Autonomia Erkidegori eragiten ez badi; metalurak, ur beroak eta lurpeko urak. Hori

En la elaboración del Proyecto de decreto cuyo inicio se ordena se tomarán en consideración las siguientes premisas:

PRIMERO. - Objeto y finalidad.

El objeto de la presente Orden es acordar el inicio del procedimiento para la elaboración de un proyecto de Decreto por el que se crea el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La finalidad principal es dar cumplimiento a la obligación, establecida en la normativa básica estatal, de crear el Registro de Seguridad de Presas y Embalses de la Comunidad Autónoma del País Vasco y regular su contenido y el procedimiento para la práctica de las inscripciones de conformidad con lo que establece la vigente legislación.

SEGUNDO. - Viabilidad jurídica y material.

La viabilidad jurídica del proyecto de Decreto se fundamenta en las competencias atribuidas a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Estatuto de Autonomía, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre. En particular, el artículo 10.11 atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco; instalaciones de producción, distribución y transporte de energía, cuando este transporte no salga de su territorio y su



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

guztiori, Konstituzioaren 149.1.25 artikuluan erabakitakoari kalterik eragin gabe.

Eskumen-esparru hori garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 10.1.n artikulua Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari esleitzen dizkio uren arloko eskumenak. Era berean, dekretu horren 10.2 artikulua sail horri atxikitzen dio Uraren Euskal Agentzia (URA), zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Eremu horretan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 360.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko ekainaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Uraren Euskal Agentzia izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko presen, urtegien eta putzuen segurtasunaren arloko organo eskudun, eta, ondorioz, arlo horri lotutako eginkizunak betetzea dagokio, besteak beste, aplikatu beharreko araudian aurreikusitako presen eta urtegien segurtasuneko erregistroa sortzeari eta kudeatzeari buruzkoak.

Era berean, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua Uraren Euskal Agentziari esleitzen dio bere jardun-eremuari dagozkion gaiei buruzko xedapen orokorren proiektuak egin eta Euskal

aprovechamiento no afecte a otra provincia o Comunidad Autónoma; aguas minerales, termales y subterráneas. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.25.a de la Constitución.

En desarrollo de dicho marco competencial, el artículo 10.1.n) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de estos, atribuye al Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad las competencias en materia de aguas. Asimismo, el artículo 10.2 del citado decreto adscribe a dicho Departamento la Agencia Vasca del Agua (URA), ente público de derecho privado.

En ese ámbito, por Acuerdo del Consejo de Gobierno Vasco de 17 de junio de 2008, adoptado a los efectos de lo dispuesto en el artículo 360.2 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, la Agencia Vasca del Agua fue designada como órgano competente en materia de seguridad de presas, embalses y balsas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, correspondiéndole, en consecuencia, el ejercicio de las funciones vinculadas a dicha materia, entre ellas las relativas a la creación y gestión del Registro de Seguridad de Presas y Embalses previsto en la normativa aplicable.

Asimismo, el artículo 7 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, atribuye a la Agencia Vasca del Agua la función de elaborar y remitir a las autoridades competentes de la Comunidad



Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunei helarazteko eginkizuna.

Autónoma del País Vasco los proyectos de disposiciones generales en las materias propias de su ámbito de actuación.

HIRUGARRENA. - Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Dekretu-proiektuak ez du eraginik ordenamendu juridikoan, ez bada Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 363. artikuluan jasotako aurreikuspenak garatzea, administrazio eskudunak erregistro bat sortzeko betebeharrari eta haren aplikazio-eremuari lotutako azpiegituren inskripzioari dagokienez.

TERCERO. - Repercusiones en el ordenamiento jurídico.

El proyecto de Decreto no tiene repercusiones en el ordenamiento jurídico, más allá de desarrollar las previsiones contenidas en el artículo 363 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, en lo relativo a la obligación de creación de un registro por la Administración competente y a la inscripción de las infraestructuras sujetas a su ámbito de aplicación.

LAUGARRENA. - Dossier erantsia

Dekretu-proiekturako ez da beharrezkoa izango generoaren arabera eraginari buruzko txostena egitea, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen lehenengo jarraibidearen 2.1.b) iii) letraren arabera. Izan ere, jarraibide horren arabera, ez dute generoaren arabera eraginari buruzko txostenik behar proiektatutako xedapenek funtsean antolaketa-izaera dutenean, eta horien artean daude administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzekeko proiektuak.

CUARTO. - Dossier Adjunto

No será necesario Informe de Impacto en Función del Género para el Proyecto de decreto de conformidad a la Directriz primera, apartado 2.1.b) iii), de las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, que establece que se exceptúa la elaboración del Informe de Impacto en Función del Género en aquellos supuestos en los que las disposiciones proyectadas tengan un carácter esencialmente organizativo, entre los que se incluyen los proyectos de creación u ordenación de registros administrativos.

BOSGARRENA. - Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

QUINTO. - Incidencia económica y presupuestaria.



Dekretuaren aplikazioak ez du eragini ekonomikorik ez aurrekontu-eraginik izango. Gauzak horrela, ez da beharrezkoa izango xede horretarako baliabide ekonomikorik bideratzea, ez eta beste kontsignaziorik egitea indarrean dauden aurrekontuetan.

SEIGARRENA. - Egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak.

6/2022 Legearen 13.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaiaren eta edukiaren arabera egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, hona hemen aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Prozedura hasteko agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasiera-agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu behar da. Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ahal ditzan, hala nahi izanez gero.

Era berean, agindua Legegunea ezagutza partekatuko lankidetzaren txertatuko da.

La aplicación del Decreto no tendrá ninguna incidencia económica ni presupuestaria. Ello es así porque no se precisa destinar ningún recurso económico ni establecer consignación presupuestaria adicional con dicho cometido en los presupuestos vigentes

SEXTO. - Trámites e informes que se consideran procedentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 de la Ley 6/2022, la Orden de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes por razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta. En atención a lo indicado, se determinan a continuación los trámites e informes que, en principio, se requieren para la elaboración y aprobación del proyecto de decreto previsto:

1.- Publicación de la Orden de inicio en el tablón de anuncios de la sede electrónica.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, esta orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euzkadi. Esta publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

Asimismo, la presente Orden se insertará en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legegunea.



2.- Proiektua idaztea

Dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak hartuko dira kontuan, honako printzipio hauen arabera: beharrezakoa, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta eraginkortasuna. Era berean, aintzat hartuko dira aurreikusitako erregulazioaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitza, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Era berean, testuak erregulazioa justifikatzen duten zioen eta oinarri juridikoen azalpen egokia jaso beharko du, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera idatzi beharko da, bi hizkuntzetan egitea, hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna eta hizkera inklusibo eta ez-sexistaren erabilera bermatuz.

3.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.

6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txostena idatziko da.

Baina *Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen* lehenengo jarraibidearen 2.1.b) iii) letraren arabera, ez dute generoaren araberako eraginari

2.- Redacción del texto

La redacción del texto del proyecto de Decreto se efectuará atendiendo al contenido de esta Orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia y el resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio.

Asimismo, el texto deberá incorporar una adecuada exposición de los motivos y fundamentos jurídicos que justifican la regulación y redactarse de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, garantizando su elaboración bilingüe, la igualdad entre las lenguas oficiales y el uso de un lenguaje inclusivo y no sexista.

3.- Informe de impacto en función del género.

El apartado 4 del artículo 14 de la Ley 6/2022 dispone que, una vez redactado el texto del proyecto, se procederá a redactar un informe de impacto en función del género.

En este sentido, de conformidad con la Directriz Primera, apartado 2.1.b) iii), *de las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres*, se exceptúa la elaboración



buruzko txostenik behar proiektatutako xedapenek funtsean antolaketa-izaera dutenean, eta horien artean daude administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzekeo proiektuak.

Kasu honetan, xedapenaren izaera eta helburua kontuan hartuta (administrazio-erregistro bat sortzea du xede), jarraibide horretan aurreikusitako salbuespena aplikatu behar da, eta, ondorioz, ez da egin behar generoaren arabera eraginari buruzko txostenik.

4.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

Espedientearen eskumena duen organoak txosten bat egin beharko du nahitaez arau-eraginaren azterketari buruz. Txosten horretan, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko da, bai eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan aurreikusitakoa ere.

5.- Xedapen orokorraren proiektua aurretiaz onartzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin baino lehen, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak aurretiazko onarpena eman beharko dio dekretu-proiektuari, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurretiazko onarpena ematen duen aginduari onartutako testu elebiduna eta 6/2022 Legearen 15.

del Informe de Impacto en Función del Género en aquellos supuestos en los que las disposiciones proyectadas tengan un carácter esencialmente organizativo, entre los que se incluyen los proyectos de creación u ordenación de registros administrativos.

En el presente caso, atendiendo a la naturaleza y finalidad de la disposición, cuyo objeto es la creación de un registro administrativo, procede aplicar la excepción prevista en la citada Directriz y, en consecuencia, prescindir de la elaboración del correspondiente informe de impacto en función del género.

4.- Memoria de análisis de impacto normativo.

El órgano competente elaborará con carácter preceptivo una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la orden de inicio cualquier extremo que pueda ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, lo previsto en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio.

5.- Aprobación previa del proyecto de disposición de carácter general.

Antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el proyecto de Decreto se someterá a aprobación previa del consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio

La orden de aprobación previa adjuntará el texto bilingüe así aprobado y el expediente conformado



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

artikulan adierazitako dokumentuek osatutako espedientea erantsiko zaizkio.

por los documentos indicados en el artículo 15 de la Ley 6/2022.

6.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

6.- Audiencia e información pública.

Behin arauaren testuari aurretiazko onarpena eman ondoren, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezartzen den entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da.

Una vez aprobado con carácter previo el texto normativo, procederá realizar el trámite de audiencia e información pública previsto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, con el que se dará cumplimiento a la exigencia de participación ciudadana.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak eta jarraian edo beste une batean bete behar ez diren izapide guztiak aldi berean egingo dira, epe berean, aurretiaz onartutako testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Los trámites de audiencia e información pública se realizarán simultáneamente con todos aquellos que no requieran un cumplimiento sucesivo o en un momento diferente, durante el mismo plazo común, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi del texto que haya sido objeto de aprobación previa.

7.- Beste administrazio batzuek parte hartzea edo haiei kontsulta egitea.

7.- Participación y consulta a otras administraciones.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidea beteko da, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Con carácter simultáneo, se dará cumplimiento al trámite de participación y consulta al resto de Administraciones de la Comunidad Autónoma, previsto en el artículo 18 de la Ley 6/2022, de 30 de junio.

Horretarako, honako organo eta administrazio hauen parte-hartzea eskatuko da:

A tal efecto, se recabará la participación de los siguientes órganos y Administraciones:

- Eusko Jaurlaritzako Babes Zibila (Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza).
- Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

- Protección Civil del Gobierno Vasco (Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología)
- Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Estatuko Administrazio Orokorra (Uraren Zuzendaritza Nagusia), erregistro autonomikoen koordinatzaile gisa.
- EAEko foru-aldundiak.

8.- Txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

* Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluaren txostena, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 14.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

* Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duen eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen ote duen argitzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak 2. artikuluan agintzen duen eran.

* Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak 21.1.c) artikuluan xedatutakoa betez.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten guztiak aldi berean eta hilabeteko epe berean egingo dira, aurretiaz onartutako xedapen-

- Confederación hidrográfica del Cantábrico.
- Confederación hidrográfica del Ebro.
- Administración General del Estado (Dirección general del Agua) como coordinadora de los registros autonómicos.
- Las diputaciones forales de la CAE.

8.- Informes y dictámenes.

Se solicitarán los siguientes informes de carácter no esencial:

* Informe del Consejo del Agua del País Vasco, conforme a lo establecido en la letra c) del artículo 14 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

* Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, exigido por el artículo 2 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

* Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación Administrativa de conformidad con el artículo 21.1.c) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16, dichos informes, de carácter no esencial, se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

testua EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Horrez gain, nahitaezko funtsezko txosten hauek eskatuko dira:

* Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

* Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean (25. artikulua) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legean (3.d artikulua) ezarritakoaren arabera, Estatuko legeria garatzeko eskumen autonomikoak baliatuz Eusko Jaurlaritzak ematen dituen erregelamendu-xedapenen proiektuak direlako.

10.- Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea osatuko da 6/2022 Legearen 24.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, prozedura osoaren memoria labor bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatueta adierazitako edukiarekin.

11.- Gardentasuna.

plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.

Adicionalmente, se solicitarán los siguientes informes preceptivos de carácter esencial:

* Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 23)

* Informe de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, de conformidad con lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 25) y en la Ley 9/2004 de 24 de noviembre de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi (artículo 3 apartado d). por tratarse de proyectos de disposiciones reglamentarias que se dicten por el Gobierno Vasco en ejercicio de las competencias autonómicas de desarrollo de la legislación estatal.

10.- Expediente final y Memoria sucinta del procedimiento.

El expediente final se conformará según lo dispuesto en el artículo 24.1 de la Ley 6/2022. Asimismo, se unirá una memoria sucinta de todo el procedimiento, con el contenido que se señala en los apartados 2 y 3 del citado artículo 24.

11.- Transparencia.



Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea EAEko araudiaren atarian argitaratu beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritz.

12.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaitutakoan, Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onespena eman diezaion, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

ZAZPIGARRENA. - Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta ordezkaritza-maila handiena duten erakundeen identifikazioa

Dekretu-proiektuak presen titularren betebeharrak garatzen dituenaz, xedapenak ukitutako subjektu nagusiak titullarrak, publikoak nahiz pribatuak, eta azpiegituren ustiapen-kudeatzaileak izango lirateke, bai eta horiek biltzen dituzten edo gaiarekin zerikusia izan dezaketen elkarteak ere.

Oro har, subjektu eta antolakunde hauek izan daitezke:

- * Jabe edo titular pribatuak
- * Ureztatzaileen elkarteak
- * Udalak
- * Uren partzuergoak edo beste entitate kudeatzaile batzuk (mancomunitateak...)
- * Industriak
- * Foru-aldundiak

Toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento para la elaboración del proyecto de decreto debe ser publicada en el portal de la normativa vasca Legegunea, en consonancia con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

12.- Aprobación por el Consejo de Gobierno.

Finalizado el procedimiento de elaboración, el Proyecto de decreto se someterá a la aprobación final por el Consejo de Gobierno, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 6/2022.

SEPTIMO. - Identificación preliminar de los sujetos y las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la disposición.

Dado que el proyecto de Decreto viene a desarrollar las obligaciones de los titulares de presas, los principales sujetos afectados serían los titulares públicos o privados y los posibles gestores de explotación de las diferentes infraestructuras, así como las asociaciones que los agrupan o que pudieran tener algo que ver con la materia.

Con carácter general dichos sujetos y organizaciones serían:

- * Titulares privados
- * Comunidades de Regantes
- * Ayuntamientos
- * Consorcios de Aguas u otras entidades gestoras (mancomunidades...)
- * Industrias
- * Diputaciones Forales



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

*Jabe-erkidegoak (azpiegitura erkidego batena denean)

* Enpresa hidroelektrikoak

* Azpilur Euskadi S.A.M.P.

* Nekazaritza-elkarteak

* EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartea

* Industria-elkarteak (CONFEBASK)

* Federazio eta elkargo profesional eskudunak.

* Comunidades de propietarios (cuando la infraestructura es de una comunidad)

* Empresas hidroeléctricas

* AZPILUR . Euskadi S.A.M.P.

* Asociaciones agrarias

* Asociación de municipios (EUDEL)

* Asociaciones de industrias (CONFEBASK)

*Federaciones y colegios profesionales competentes.

ZORTZIGARRENA. Proiektuaren itzulpena edo idazketa elebiduna egiteko teknika.

Dekretu-proiektua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiari jarraituz.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, testua IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko du, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

BEDERATZIGARRENA. - Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa.

Dekretu-proiektuaren zirriborroa, txostenak eta memoriak egitea Uraren Euskal Agentziari dagokio,

OCTAVO. - Técnica para la traducción o redacción bilingüe.

La redacción del proyecto de decreto deberá efectuarse en bilingüe, conforme a lo previsto en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de Ley, Decreto Legislativo, Decreto u Orden.

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, será el de traducción por el Servicio Oficial de Traductores (IZO), de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.3 de la Ley 6/2022 y en el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

NOVENO. - Órgano administrativo instructor.

La elaboración del borrador del Proyecto de decreto, informes y memorias corresponderá a la Agencia



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

zeina Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari atxikita baitago lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 10.2 artikuluan arabera (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Prozeduraren instrukzioa, berriz, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, hala xedatzen baitu Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 5. artikulua.

HAMARGARRENA. -- Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritik, Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiarekin bat etorritik (horren bidez, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzen da).

Vasca del Agua, adscrita al Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad en virtud del artículo 10.2 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

La instrucción del procedimiento oportuno corresponderá a la Dirección de Servicios del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, de conformidad al artículo 5 del Decreto 410/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

DECIMO. - Tramitación del procedimiento a través de Tramitagune.

La tramitación del procedimiento se realizará a través de la aplicación informática "Tramitagune", de acuerdo con el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de mayo de 2025 por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.